1998 URT. 15

EGUNKARIA

ANDER GILLENEA



# Indurainek eman dio hasiera aurtengo txotx garaiari Astigarragan

*Sagardo Berriaren Eguna ospatu zuten atzo, eta ofizialki bihar hasiko da txotxeko sagardoaren denboraldia*

■ «SAGARDO BERRIA» esaldi ezagunarekin, aurtengo lehen sagardo upela ireki zuen atzo Miguel Indurainek, Astigarragako Petritegin. Txotx garaia bihar hasiko da eskualde horretan, orduan zabalduko baitituzte hango sagardotegiak. Bertako sagarra iaz baino gutxiago erabili den arren, aurten ere sagardo ona atera dela adierazi zuten sagardogileek. Indurainek, baina, etxe alde jokatu zuen: «Nik ardoa nahiago».